


Hitzaurrea



Elena Odriozola

erriro ere zurekin, irakurle, aurreko zenbakiarekin agindutako hitzordura garaiz iritsirik, *Behinola* aldizkariaren udaberriko alea. Izan ere, *Behinola* udaberri eta udazkenean plazaratzen da eta, urtaro horien antzera, muturreko sasoietatik urrun, askotariko ñabardura eta xehetasunak hartzen ditu bere baitan.

Hautzaro eta gaztaroa ere halakoxeak dira. Kanpotik ikusita, baserriko bizimoduaren antzerakoak, idilikoak eta desiragarriak, betiko atzean utzitako garai zoriontsuak. Baina bertatik bertara aztertuta (hautzaroa ez baitago kanpotik ikusterik, barru-barrutik baizik), gatazka eta grinaz beteta dagoela ohartzen gara. Horrexegatik Haur eta Gazte Literatura ere ezin da inuzente eta xaloa izan; eta gure bitartekaritza lanetan inguruan ditugun hurrei eskaintzen diegun literatura aukeratzea ez da txantxetako gauza: gutariko bakoitzaren erantzunkizuna da.

Zenbaki honetako edukiei dagokienez, lehenbizi, zenbaki honetako marrazki guztiak, azaleko margo ederra barne, ELENA ODRIOZOLA ilustratzailearenak dira. Idatzizko gaietan, saio eta ahalegin ugari egin badugu ere, inor ez da jarritako «Hitzordu» horretara azaldu, baina ez dugu horregatik etsi nahi, eta hor geratzen da gonbitea hurrengo batean irakurleek zernahi esan dezaten. Bitartean, Galtzatorriko kolektibo guztien interesekoak izan daitezkeen zenbait albiste eta kolabo-



Elena Odriozola

Hitzaurrea

razio labur eskaintzen ditu atal horrek. «Hitz eta pitz» atalean, berriz, oso geurea dugun pertsonaia bat elkarrizketatu nahi izan dugu, SEVE CALLEJA idazle polifazetikoa hain zuzen ere: euskal HGLren aztertzaile, idazle oparo, zenbait bildumaren koordinatzaile, irakasle... Hainbat gai jakingarriri buruz galdetu diogu, eta baita hark gogo onez erantzun ere. Beste alde batetik, literatura tradizionalak egin digu bisita «Hitzontzi» atalean. Eta joan den urteko azaroan Gasteizen burutu zen «Haur Literatura eta Eskola» biltzarra, berriz, «Hizpide»: horra hor AGUSTÍN FERNÁNDEZ PAZ idazle galiziarra eta TERESA COLOMER irakasle kataluniarra aurkeztutako txosten mamitsuak eta mahainguru interesgarri bat. MARI JOSE OLAZIREGI Galtzagorri Elkarteko lehendakariak Mariasun Landaren *Iholdi* liburuari buruz idatzitako artikulu bat dator atal hori osatzera. «Hitz beste» kritikaren atalean kritika eta erreseina ugari biltzen da, ikuspegi positibo eta informatzaile batetik betiere. Eta, aldizkaria ixteko, «Hitzatzea»: XABIER DIAZ ESARTEK haurrentzako antzerki testuei buruz egindako gogoeta bat.

Eduki hauek gure irakurle guztien gustukoak izango direlakoan, eta beti bezala zure iritzien zain, udazkeneko hitzordua arte.



Elena Odriozola